

BALIO PROPOSAMENA

Nortzuk gara?

Gu Jmiparragirreko batxilergoko Ekonomia ikasgaiako 5 ikasle gara. Gizartearekin konpromezua daukagu eta gure produktuarekin gizartearen onura bilatzen dugu.

Ideia

Gure enpresaren izena Mirrornem da. Enpresak ispilu intelijente bat sortu du, zure armaruko arropa eskaneatzen duena. Aukera asko ematen dizkizu, zer jarri ez dakizuenean berak laguntzen zaitu eta egun horretan ze estilo jantzi nahi esan diezaiokezu eta estilo hortako arropak eskaintzen dizkizu. Ispiluak inkorporatuta aplikazio bat edukiko du, bertan egun batean jarritako look osoa gordeko dizu eta zure gustukoenak gorde ditzakezu. Ispirualen tamaina gorputz osokoa izango da.

Gure produktuaren ezaugarriak ondorengoak dira:

Nobedadea: Gure produktua nobedade bat da, oraindik ez direlako sortu produktu berdinak, antzekoak bai.

Erabilgarria: Gure produktua modan interesa duten pertsonentzat zehazki oso erabilgarria izan daiteke.

Prezioa: Gutxi gorabehera 200 euroko prezioa izango du (taminaren eta formaren arabera prezioa handitu edo txikituko da)

Erabilteerreza: Gure produktua oso erreza izango da erabiltzeko, argibideak ondo azalduta egongo direlako. Ispilua taktila izango da eta ispiluarekin batera mando bat etorriko da.

Diseinua: Hasieran diseinu bakarra egongo da baina gure enpresa aurrera doan einean eredu berriak aterako ditugu. Gure produktuak hainbat diseinu edukiko ditu (txikiak, ertainak eta handiak) baita ere kolore desberdinak izango ditu.

Pertsonalizazioa: Gure produktua pertsonalizatu daiteke koloreen bitartez. Hasieran, tamaia bakarra egongo da, gorputz osokoa esaten zaiona, baina, negozioa ondo badoa tamaia ezberdinak ekoiztuko ditugu, produktua pertsonalizatuagoa egoteko.

Lana erraztea: Gure produktuak aplikazio bat edukiko du, bertan erabileraren argibideak ondo zehaztuta egongo dira erabilera erreza izateko. Egunerokotasunean, janzerako orduan zein arropa jartzea aurrezten dizugu.

Azkartasuna: Gure bezeroei arropa aukeratzea azkartzen diegu, hau da, ez dute asko pentsatu behar zein arropa jarri baizik eta mometuan aukeratzen dute.

Eskuragarritasuna: Gure produktua, gure enpresaren dendan, Amazonen, Ikean, Leroy Merlinen salduko dugu.